## II. eranskina: Gai-zerrenda

## Zati orokorra

1. gaia.- 1978ko Espainiako Konstituzioa: Atariko titulua eta Lehen titulua.

2. gaia-- Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa: Atariko titulua. Parlamentua edo Nafarroako Gorteak: osaera, antolaketa eta funtzioak. Nafarroako Gobernua: Eginkizunak. Osaera, izendapena, eraketa eta kargu-uztea. Eskudantziak eta eskumenak. Funtzionamendua. Nafarroako Gobernuko lehendakaria: hautaketa, izendapena eta eskudantziak.

3. gaia.- Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutua: Langile-motak. Funtzionario publikoen hautaketa. Funtzionario izaera hartzea eta galtzea. Administrazio-karrera. Egoera administratiboak. Lanpostu-hornikuntza. Eskubideak eta betebeharrak.

4. gaia.- 3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena. 2/ 2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa.

5. gaia.- 61/2022 Foru Dekretua, ekainaren 1ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzaren etapako irakaskuntzen curriculuma ezartzen duena.

6. gaia.- 28/2007 Foru Dekretua, martxoaren 26koa, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako lehen zikloa arautzen duena eta hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta ziklo horren hezkuntza edukiak ezartzen dituena.

**Zati espezifikoa**

7. gaia.- Kudeaketaren antolaketa, organigrama eta Estatutuak Iruñeko Udaleko Haur Eskoletan.

8. gaia.- Hezkuntza-proiektua eta Proposamen Pedagogikoa Haur Hezkuntzako lehen zikloko Nafarroako ikastetxeetan. Iruñeko Udaleko Haur Eskolen ildo pedagogikoa. Printzipio komunak.

9. gaia.- Korronte pedagogiko nagusien planteamenduak eta eragina 0-3 urteko zikloan. Eskola Berria. Ikuspegi eta metodo pedagogiko garrantzitsuenak: Reggio Emilia ikuspuntua, konstruktibismoa, Waldorf pedagogia, Emmi Pikcler pedagogia, Montessori metodoa eta Heike Freireren pedagogia berdea.

10. gaia.- Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxearen antolaketa. Hezkuntza-koherentzia, profesionalen jarrerak. Espazioen eta denboren antolaketa.

11. gaia.- Hezitzailearen zeregina Haur Hezkuntzako lehen zikloan. Gaitasunak, trebetasunak eta jarrerak. Hezitzaile-bikotea, Hezkuntza-taldea: lan-estrategiak, bilerak, koordinazioa beste profesional batzuekin.

12. gaia.- Hezkuntzan esku hartzeko printzipioak. Metodologiak eta lan-proposamenak ikasgelan eta beste hezkuntza-eremu batzuetan. Ikuspegi globalizatzailea. Ikaskuntza esanguratsua. Ezagutza eraikitzeko prozesua.

13. gaia.- Hezkuntza-ikerketa: dokumentazioa haur-eskolan, idatzizko, ikusizko eta ikus-entzunezko dokumentazioa. Dokumentazioaren funtzioak, helburuak, modalitateak eta trataera.

14. gaia.- Hezkuntza-prozesuaren ebaluazioa. Ebaluazioaren funtzioa. Ebaluazio-estrategiak, -teknikak eta -tresnak. Behaketa ebaluazio-teknika gisa.

15. gaia.- Erritualak edo errutinak haur-eskolan: janaria, loa, pixoihala aldatzea, esfinterren kontrola. Zaintzaren pedagogia.

16. gaia.- Garapen logiko-matematikoa. Jolasa. Hezkuntza-oinarriak eta ikasteko proposamen ludikoak. Haur-jolasaren bilakaera. Jolas- eta material-mota egituratuak eta egituratu gabeak. Giro ludikoak sortzea. Jolas heuristikoa. Jolas sinbolikoa. Hezitzailearen zeregina.

17. gaia.- Haur-literatura. Ipuinaren balio hezigarria. Ipuin motak eta ezaugarriak. Gianni Rodari eta literatur sormena.

18. gaia.- Adierazpena eta komunikazioa 0-3 urteko haurretan. Hizkuntza eta pentsamendua. Adierazpenaren eta ulermenaren bilakaera. Hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa.

19. gaia.- 0-3 urteko haurren garapen sozio-afektiboa. Nortasunaren, identitatearen, autonomiaren eta autoestimuaren garapena. Indibidualizazioa eta sozializazioa.

20. gaia.- 0-3 urteko haurren garapen kognitiboa. Bilakaera, teoriak, aplikazio praktikoak. Garapen logiko-matematikoa. Hezitzailearen proposamenak eta zeregina.

21. gaia.- 0-3 urteko haurren garapen psikomotorra. Psikomotrizitatea hezkuntza-estrategia gisa. Harremanetarako psikomotrizitatea. Gorputz-eskema, jarreraren kontrola, lateralitatea.

22. gaia.- Giroa. Ekipamendua, material pedagogikoak eta curriculum-materialak, 0tik 3 urtera bitarteko hezkuntza-etapan.

23. gaia.- Adierazpen plastikoaren ezaugarriak eta garapena haurtzaroan. Lengoaia plastikoa. Proposamenak eta baliabide lagungarriak. Adierazpen lantegia ikuspegi reggiarretik.

24. gaia.- Ingurunearen eta haurren garapenaren arteko erlazioa. Hurbileko ingurune ekologikoa: Familia eta eskola. Familia sozializaziorako lehen eragile gisa. Haur-eskolaren eta familiaren arteko harremana. Komunikaziorako, partaidetzarako, lankidetzarako eta inplikaziorako bide nagusiak. Bilerak familiekin. Hezitzailearen zeregina eta jarrerak.

25. gaia.- Harrera-aldia eta egokitze-aldia. Plangintza, antolaketa, hezitzailearen zeregina. Familiei arreta. Elkar ezagutzeko gunea. Atxikimendua.

26. gaia.- Hezkuntza-inklusioa haur-eskolan. Aniztasunaren arreta. Normalizazio- eta inklusio-printzipioak. Haurren aurkako tratu txarrak. Hezkuntza- eta laguntza-premiak eta -neurriak. Laguntza goiztiarreko programak. Eskolaren gizarte-premiei erantzutea.

27. gaia.- Eleaniztasunaren eta kultura-aniztasunaren trataera haur-eskolan. Bigarren hizkuntza eskuratzeari buruzko teoriak.

28. gaia.- Elikadura osasungarria haur-eskolan. Haurren elikaduraren garapena eta ezaugarriak. Elikadura eta familia.

29. gaia.- Osasunerako hezkuntza haur-eskolan. Hezitzailearen eginkizuna osasun-eragile gisa. Gaixotasun-egoeretan esku hartzea haur-eskolan. Istripuen prebentzioa eta lehen sorospenak.

30. gaia.- Esperientzia musikala. Musika-adierazpenaren ezaugarriak eta garapena haurtzaroan. Erritmo- eta musika-adierazpena garatzeko estrategiak. Musika-adierazpenerako baliabideak. Musika-entzumena. Musika hezkuntza-baliabide gisa.